

Indar politikoak: alderdiak ala fakzioak

E

uskal jende gehiena nazka-nazka eginda dago politikaz. Hori horrela da, Euskal Herriko politikak duela gutxi arte zirrara ikaragarria sortzen bazuen ere. Zer dela eta?

Argi dago, ezin dugula analisi honetatik kanpo utzi mendebaldeko demokrazia guztietan aspaldian diagnostikatu zen *deskontentu politiko*. Hala ere, politikarekiko gogaitasun horrek sustraiak unibertsalak ez ezik, *euskal labeleko* motiboak ere tartean ditu. Hortaz, egoera hori azaltzeko, Euskal Herria euren giza komunitate edo erkidegotzat jotzen duten hiritarrek ditugu gure hipotesiaren oinarri.

Izan ere, Euskal Herria zinezko komunitatez hartzen duen edonorentzat herri horren biziraupena, nazioarteko onarpena eta burujabetasuna dira politikagintzaren oinarri-oinarrizko abiapuntuak. Ideia horietara bildu beharko lukete euskal erkidegoaren alde lan egin nahi duten alderdi politiko guztiek, xede horiek beste edozein interes partidistaren aurretik lehenetsiz.

Gure politikagintzan, ordea, oso bestelako jokoa antzematen da: funtsezko abiapuntu horiek bazter utzita, eguneroko ogia dugu euskal alderdi politikoaren arteko tirabirak, deskalifikazioak, irainak eta erasoak. Lehenesten dutena ez dira euskal komunitatearen xedeak, nork bere interes estrategikoa baizik.

Puntu honetara iritsita, gogora ekarri behar



ALBERTO ELOSEGI

ditugu Burke-n oinarritzko ideia batzuk –buruz aipatuta bada ere–, alderdi politiko parlamentarioen sorreran, erakunde berri horien inguruan teorizatu zituenak: a) alderdi politikoek ordezkatzen duten komunitate edo erkidegoaren funtsezko interesen inguruan bat egin behar dute, euren interesa bigarren mailan utzita; b) horrela gertatu ezean, ezingo genuke alderdi politikoek hitz egin *fakzioez* baizik; c) ezinezkoa izango zen herrialde batek aurrera egitea bere parlamentuko indar politikoak *fakzio* izaera baino ez bazuten hartzen, azken horien joko arduragabe eta zatitzaileak erkidegoa hondamendirara eramango baitzuen.

Hona iritsita, geure buruari egin behar diogun galdera hau da: zer dugu Euskal Herrian, alderdi politikoak ala fakzioak? Izan ere, praxi politikoari erreparatuta, ez dirudi euskal indar parlamentarioek euren arteko ika-mika eta interesen aurretik, komunitatearen interesak kokatzen dituztenik.

Esandakoa gutxi balitz ere, euskal indar (alderdi/fakzio?) politikoaren arteko gatazkek zatiketa eragiten dute euskal sentimendua duten herritarrengan, indar politiko batzuetara edo besteetara lerratzen diren herrikideak aurrez aurre ipintzen dituzte-eta. Hori ez da huskeria erkidego baten elkarbizitza eta bizi-iraupenerako, bistan denez.

Gainera, modan jarri zaigun *gizarte kapital* kontzeptuaren arabera argi dago halako zatiketa bat zeharo urruntzen dela erkidego batek idealiki bete beharko lituzkeen baldintzetatik, herrikideen arteko harreman ugariak eta konfiantzazkoak izatetik, alegia. Euskal indar politikoek euren jarraitzaileen artean eragiten duten zatiketak guztiz kontrako egoera eragiten du. Gertaera hori begi bistakoa da hainbat herritan, non kaleko giroa jasanezin bihurtu zaio nolabaiteko lotura politikoa (indar politiko batzuekiko zein besteekiko) adierazten duen herritar askori.

Azken buruan, alderdi/fakzio (?) politikoek, gure etorkizuna arrisku bizian jartzen dutela ikusita eta beste auzokide batzuekin arazoak sortarazten dituztela konturatuta, ez da batere harriztekoa euskal jendearen gehiengoa –egun- go– politikaz nazkatu izana. ■

Praxi politikoari erreparatuta, ez dirudi euskal indar parlamentarioek euren arteko ika-mika eta interesen aurretik, komunitatearen interesak kokatzen dituztenik

